



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko abenduaren 12a

141. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—10-22/LEY-00018. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00018. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2022ko azaroaren 9ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluaaren laugarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

“Laugarrena. 7.z) artikulua, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“z) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsarekin (LGENF) batera finantzatutako Nafarroako landa garapenerako programako laguntzen 100eko 100.

Era berean, salbuetsia egonen da Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEUF) osorik finantzatutako laguntzen 100eko 50, horiek jaso badituzte ogibide nagusia nekazaritza duten nekazariak, Nafarroako Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bi kontzeptuengatik jasotako laguntzei dagokien salbuespenaren gehieneko zenbateko bate-ratua ezin izanen da izan 20.000 euro baino gehiagokoa”.

Zioak: Laugarren apartatuak 7.z) artikulua aldatzen du, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

Aldaketetako batek NBEUF-Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren laguntzei zegokien salbuespenaren onuradunen multzoa handitzen zuen, halako moldez non % 50eko salbuespenaz balia baitzitezkeen lehentasunezko nekazaritza-ustiategiaren titularrak ez ezik, baita ogibide nagusi gisa nekazaritza zeukatenak ere.

Baina proiektuko testuan nahi gabe utzi ziren aipatzeke lehentasunezko nekazaritza-ustiategiaren titularrak, indarreko testuan jasota baitzeuden.

Zuzenketaren bitartez huts hori bete nahi da eta, horrenbestez, salbuespena izanen dute bai ogibide nagusiz nekazaritzat jotzen direnak bai lehentasunezko sailkapena duten nekazaritza-ustiategiaren titular direnak.

Abagunea halaber aprobetxatzen da argitzeko ezen salbuespenaz baliatu ahalko direla zerga-sortzapenaren egunean ogibide nagusiz nekazari jotzen direnak edo lehentasunezko nekazaritza-ustiategi baten titular direnak.

2. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluaaren bederatzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

«Bederatzi. 34.6 artikulua, b) letra gehitzea, oraingo edukia a) letra bihurtuz, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“b) Basogintza jardueren kasuan, a) letran eza-eritako murriztapen ehunekoa honako hau izanen da:

1) 100eko 55, mozketa aldia 15 urtekoa edo gehiagokoa eta 70 urtekoa edo gutxiagokoa bada.

2) 100eko 65, mozketa aldia 70 urte baino gehiagokoa bada”.

Zioak: Oihan-jarduerengatik aplikatu beharreko murrizte-portzentajeak igotzen dira.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 25. artikulua 2. apartatua aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positiboa honela murriztuko da:

100eko 40, etxebizitza-erabilerarako higiezin errentamendutik heltzen denean. Portzentaje hori 100eko 50ekoa izanen da, toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrietakoren batean kokatuta dagoenean etxebizitza.

100eko 60, etxebizitzatarako erabiltzen diren etxebizitzaren errentamendutik ateratzen denean, errentamendu hori arau hauetan jasotako sozietate publiko instrumentalaren bitartez eginga bada: Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua, eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikulua.

100eko 45, errentamenduaren xede den etxebizitzaren urteko alokairuaren zenbatekoa AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa baino handiagoa ez bada, eta kontratua behar bezala erregistratu bada Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko

maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan xedatutakoan.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soilik aplikatuko da murrizketa».

Zioak. Neurri honekin lortu nahi da etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea, baina horiek aitortu dituzten zergadunentzat baino ez. Estatuan dagoenaren antzeko neurri bat da, eta:

- Pizgarria ematen da etxebizitzak errentan jartzeko, merkatuan etxebizitza gehiago jartzen dira, tratamendua hobeturik despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuetan kokaturiko etxebizitzentzat.

- Alokairu-errenten moderazioa sustatzen du, eskaintza handitu eta tributazioa murrizten baitu; hala, errentariak prezio txikiagoak eskaini ditzake, zerga-kostu txikiagoa baitu.

- Errentariari emandako kenkariarekin osatzen du pizgarria.

- Alokairu-errentak azalarazteko balio du, aitortutako errentei baino ez baitzaie aplikatzen.

Neurria bat dator Nafarroarekin mugakideak diren eta antzeko populazio-ezaugarriak dituzten eremuetan berriki onetsi diren pizgarriekin, zehazki, Arabako Lurralde Historikoaren PFEZaren araudian onetsitakoekin.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 31. artikulua aldatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Ez da higikorren kapitalaren etekintzat hartuko subjektu pasiboak bere ohiko lanbide edo enpresa-jarduera garatzean burututako eragiketen prezioaren gerorapenagatik edo zatikapenagatik lortutako kontraprestazioa, ezertan galarazi gabe dagokion kontzeptuaren araberrako zergapetzea.

Subjektu pasiboa hil dela-eta kosturik gabe eskualdatzen badira foru lege honen 29. artikuluan aipaturako besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak, kapital higigarriaren etekinik ez dagoela iritziko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa orobat aplikatuko da kostu gabeko eskualdaketa orainaldiko eraginkortasuna duen edozein oinordetza-tituluren bidez egiten denean. Horri dagokionez, oinordetza-titulutzat joko dira urtarrilaren 26ko 16/2004

Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 4. artikuluan adierazitakoak.

Aurreko paragrafoan aipatutako orainaldiko eraginkortasuna duen edozein oinordetza-tituluren bidez egindako kostu gabeko eskualdaketetan, besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboen eskuratzailerari dagokionez, eskurapen-balioztat joko da, etorkizuneko eskualdaketegi begira, dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari eman zizkionean zuten balioa, dohaintza-hartzaileak aktibo horiek dohaintza-emailea hil baino lehen eskualdatzen dituen izan ezik. Kasu horretan, dohaintza-hartzaileak agertuko da dohaintza-emailearen ordean, ondasun horien eskurapen-balioei eta -datei dagokienez, eta dohaintza-emaileak orainaldiko eraginkortasuna duen oinordetza-ituna baino lehen zituenak kontserbatuko ditu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko da aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik itzultzen, amortizatzen, trukutzen edo bihurtzen direnean ere”.

Zioak. Xedea da fiskalitatea ez izatea oztopo bat ekonomiaren eta enpresen ikuspuntutik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketak egiteko, eta eragiketa horiek atzeratzera behartuta ez egotea. Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirake bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fiskalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dagoenera egokitu litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketen kostu fiskalagatik; beraz, kontua da "hildakoaren gainbalioaren" tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 34.6. artikulua b) letra aldatzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“b) Basogintza jardueren kasuan, a) letran ezarritako murriztapen ehunekoak honako hau izanen da:

1) 100eko 45, mozketa aldia 15 urtekoa edo gehiagokoa eta 35 urtekoa edo gutxiagokoa bada.

2) 100eko 55, mozketa aldia 35 urte baino gehiagokoa bada”.

Zioak. Basogintza jardueretarako murriztapen ehunekoak handitzea jardueraren beraren denboretara hobeto egokitzeke.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 36.B) artikulua 3. Apartatuaren a) letra aldatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“a) Ez dira kengarriak izanen ekarpenak eta narriaduragatiko galerak”.

Zioak. Neurri honen helburua da, jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen berezian zehazteko, jarduera ekonomikoari lotutako aktiboen balioaren galerarekin edo gutxitzearekin dagokion amortizazioaren ondoriozko gastua gastu kengarritzat jotzea.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 39.4.b) artikulua aldatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“4.b) Zergaduna hil dela-eta kosturik gabe egiten diren eskualdaketetan, baita kostu gabeko eskualdaketa orainaldiko eraginkortasuna duen oinordetza-tituluren baten bidez egiten denean ere.

Horri dagokionez, oinordetza-tituluak dira urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduak 4. artikuluan adierazitakoak”.

Zioak. Helburua da fiskalitatea ez izatea oztopo ekonomiaren eta enpresaren ikuspegitik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketak egiteko, eragiketa horiek geroagoko une baterako utzi behar izan gabe. Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirake bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fis-

kalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dagoenera egokituko litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketen kostu fiskalagatik; beraz, kontua da "hildakoaren gainbalioaren" tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 39.4. artikulua (C) letran azken paragrafo bat gehitzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

«Aurreko c) letran jasotakoa gorabehera, akzioak eta partaidetzak eskualdatzen direnean, ulertuko da ondare-gehikuntza edo -murrizketarik dagoela jarduera ekonomikorako beharrezkoak ez diren aktiboen balioaren –jardueraren ondorio ez diren zorren zenbatekoa kenduta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukitzailearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da».

Zioak. Muga bat ezarri da PFEZean ondare-gehikuntza edo -murrizketarik ez dagoela ulertzeko, familia-enpresako partaidetzak «inter vivos» kosturik gabe eskualdatzen direnean, hala-ko partaidetzak ondarearen gaineko zergatik salbuesteari dagokionez ezarritako mugarekin bat etorrira.

Aldaketa honen xedea da PFEZaren ondorioetarako ondare-gehikuntzat ez hartzea jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboen balioaren eta ondare garbiaren balioaren arteko proportzioan baino ez aplikatzea. Ondorioz, familia-enpresako partaidetzak eskualdatzen direnean, beharrezkoak ez diren aktiboen eta entitatearen ondare garbiaren arteko proportzioa aintzat hartu-

ko da PFEZean ondare-gehikuntzaren edo -murrizketaren ondorioetarako.

Azkenik, aktibo bat beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legean ezarritako definizioa hartzen da oinarritzat. 38 zenbakiko zuzenketa dela bide, hobetu egiten da haren mugaketa, ez zenbatzeko beharrezko ez diren aktibo gisa entitateak lortutako etekin banatu gabeen zenbatekoa gainditzen ez duen eskurapen-prezioa dutenak, betiere etekin horiek enpresa edo lanbide jarduerak egiteagatik lortu badira. Muga da urte horretan eta aurreko azken 10 urteetan lortutako etekinen zenbatekoa.

Neurri honen bidez, koherentzia eman nahi zaio familia-enpresaren tributu figura ezberdinen arteko eskualdaketa, kanpoan utzita, PFEZean tratamendu onuragarria izateari dagokionez, jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren aktiboenkin bat ez datorren familia-enpresaren balio proportzionala, kalterik eragin gabe azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien etekinen ondorioz metatutako kapitalari, familia-enpresen enpresa jarduerak sortutako aurrezkoa ez zigortzeko.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua bigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

"Bi. 5.8 artikulua, Bi.A).b) apartatua, eta Hiru eta Bost apartatuak, eta Bost apartatuaren egungo edukia Sei apartatua izatera igarotzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

"b) Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta lanbide edo enpresa jardueri loturik ez dauden ondare elementu gisa ere, haien erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek lanbide- edo enpresa-jardueren ondoriozkoak badira. Urte horretan berean eta azken hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Ondorio horietarako, enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako mozkinen parekotzat jotzen

dira aurreko d') letran aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak, bai eta partaidetza horien eskualdaketetatik lortutako gainbalioak ere, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira".

"Hiru. Bi apartatuan aipatzen den kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko –balio hori 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da–; hain zuzen, lanbide- edo enpresa-jarduera aurrera eramateko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiexek aplikatuko dira entitate partaidetuen partaidetzen balorazioan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.

Ondorio horietarako, Bi.A).b) apartatuan aipatzen diren horiek kontatuko dira beharrezko aktibo gisa, salbu eta:

a) enpresa- edo lanbide-jarduera bati lotuta ez dauden ondasun higiezinak direnean.

b) bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreak, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak, eta 18. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontziak direnean.

Letra honetan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko Bi apartatuan aipatutako bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreei. A).a).d').

Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuz beharrezko aktibo gisa kontatzen diren elementuek ezin izanen dute gainditu aktiboaren gutzitza koaren 100eko 75".

"Bost. Bi apartatuan araututako salbuespena ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei".

Zioak: Foru lege proiektuko bigarren artikulua- ren bigarren apartatu honek zeukan testuak interpretazio-zalantzak sortu zituen, eta horiek argitu nahi ditu zuzenketa honek, jadanik zioen azalpenak adierazitako zentzuan. Foru lege proiektuko zioen azalpenak dio (entitateetako partaidetzak Ondarearen gaineko zergan salbuestea egoteari dagokionez) ezen "...gerora etorritako ondarearen erregela sartzen da salbuespenak ukitzen dituen partaidetzen balioaren proportzioa kalkulatzeko". Neurri hori, salbuespen izateko aukerari dagokionez ezarrita zegoena, salbuespenaren irismenerako arautzen da orain. Hala, salbuespena iritsiko da, halaber, entitatearen ondare elementuekin bat datorren akzioen edo partaidetzen balioaren zatira, haien eskurapen-prezioa entitateek lorturiko

mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoen ondoriozkoak badira; eta urte horretan berean eta aurreko hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Nolanahi ere, salbuespena ez da inola ere iritsiko enpresa- edo lanbide-jarduera bati lotuta ez dauden ondasun higiezin baliara, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen baliara (salbu eta bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreek boto eskubideen 100eko 5, gutxienez, ematen dutenean eta, gainera, haien jabe izatearen helburua partaidetzak kudeatzea eta zuzentzea denean), ezta inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen, eta Ondarearen gaineko zergaren 18. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontzien baliara ere".

Testu berriak argitzen du salbuespena ez dela iristen adierazitako aktibo baliara; ezta halako kasuan ere non haien eskuratze-balioak ez duen gainditzen urtean eta aurreko 10 urteetan entitateak lorturiko irabazi banatugabeen zenbatekoa, irabazi horiek jarduera ekonomikoetatik eratorriak izanda.

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen zioen azalpenaren hirurogeita zazpigarren paragrafoa eta bigarren artikulua- ren bigarren apartatua aldatzea, biak ere zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legearen Proiektukoak.

"Nolanahi ere, salbu eta aurreko paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzeko bada, salbuespena ez da iritsiko enpresa- edo lanbide-jarduera bati lotuta ez dauden ondasun higiezin baliara, bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreen baliara (salbu eta bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreek boto eskubideen 100eko 5, gutxienez, ematen dutenean eta, gainera, haien jabe izatearen helburua partaidetzak kudeatzea eta zuzentzea denean), ezta inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen eta Ondarearen gaineko zergaren 18. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontzien baliara ere".

"Bi. 5.8 artikulua, Bi.A).b) apartatua, eta Hiru eta Bost apartatuak, eta Bost apartatuaren egungo edukia Sei apartatua izatera igarotzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“b) Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta lanbide edo enpresa jardueri loturik ez dauden ondare elementu gisa ere, haien erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek lanbide- edo enpresa-jardueren ondoriozkoak badira. Urte horretan berean eta azken hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Ondorio horietarako, enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako mozkinen parekotasun jotzen dira aurreko d’) letran aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak, bai eta partaidetza horien eskualdaketetatik lortutako gainbalioak ere, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira”.

“Hiru. a) Bi apartatuan aipatzen den kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko –balio hori 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da–, hain zuzen, lanbide- edo enpresa-jarduera betetzeko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiexek aplikatuko dira entitate partaidetuaren partaidetzen balorazioan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.

Ondorio horietarako, Bi.A).b) apartatuan aipatzen diren horiek kontatuko dira beharrezko aktibo gisa. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuz beharrezko aktibo gisa kontatzen diren elementuek ezin izanen dute gainditu aktiboaren guztizkoaren 100eko 75.

b) Kenkaria ez zaie aplikatuko honako zenbaki hauetan aipatzen diren ondasunei eta partaidetzen balioaren zatiei, salbu eta aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko bazea:

1.) Enpresa- edo lanbide-jarduera bati lotuta ez dauden ondasun higiezinak.

2.) Bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreak, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak, eta 18. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontziak.

Ordinal honetan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko Bi A).a).d’) apartatuan aipatutako bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreei”.

Zioak. Aldaketa honekin araua aplikatzean auziratzea saihestu nahi da, Foru-lege proiektuan proposatutako aldaketaren idazketa hobetuta, Ondarearen gaineko zergan entitateetako partaidetzen salbuespenaren aplikazioari dagokionez.

Zehazki, argitu nahi da aktibo jakin batzuk ez beharrezkotzat jotzen direla berriaz, salbu eta arau berria aplikatzeko bazea, zeinak ahalbidetzen baitu aktibo beharrezkotzat jotzea eskurapen prezioa entitateek aurreko azken hamar urteetan lorturiko banatu gabeko mozkinen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondarearen gaineko zergaren Foru Arauan ondorio horietarako aurreikusitakoaren antzera.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua laugarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

“Laugarrena. 6. artikulua, 3. apartatua aldatzea eta 4. apartatua gehitzea.

“3. Hitzarmen Ekonomikoaren 17.2 artikulua arabera betebeharrarengatik Foru Komunitatean zergapetuak izan behar diren subjektu pasiboaren zergapetzea izanen da Espainiako lurraldean kokatuta dauden, bala daitezkeen edo bete beharrekoak diren ondasun eta eskubideengatik.

Ondorio horietarako, Espainiako lurraldean kokatutako joko dira edonolako entitate baten funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreak, merkatu antolatuetan negoziatu gabekoak, horren aktiboa ehuneko 50eko gutxieneko neurrian osatuta dagoenean, zuzenean edo zeharka, Espainiako lurraldean kokaturiko ondasun higiezinekin. Aktiboaren zenbatzea egiteko, ondasun kontabilizatu guztien kontabilitate-balio garbiak ordeztuko dira zerga-sortzapenaren datan daukaten merkatu-balioekin. Ondasun higiezinaren kasuan, kontabilitate-balio garbiak ordeztuko dira 10. artikulua dioenaren arabera zerga-oinarri gisa kasuan-kasuan hartu behar diren balioekin.

Apartatu honek adierazitako subjektu pasiboen, izaera hori hartzen dutenetik bi hilabeteko epean, helbidea Espainian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute, hark Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean ordezkari ditzan zerga honengatik dituzten betebeharrak dagokionez. Aipatutako izendapenaren egunetik bi hilabe-

teko epean frogatu beharko da izendapen hori ogasun horretan.

Aurreko betebeharrak edozein urratzea zerga arloko arau-hauste arina izanen da, 1.000 euroko isunaz zehatzeko modukoa. Zehapen hori mailakatu egingen da, eta suertatzen den zenbatekoa %100 handituko da baldin eta tributu arloko arau-haustea behin baino gehiagotan egiten bada.”

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 52 ter artikuluan lekualdatutako pertsonentzat ezarritako araubide berezia aukeratzen duten subjektu pasiboek betebeharrak errealdaren arabera tributatuak dute. Ondorio horietarako, ez zaie aplikatuko 3. apartatuko hirugarren eta laugarren paragrafoetan xedatutakoa”.

Zioak: Zuzenketak aldatu egiten du 6.3 artikulua, higiezin-errentaren zergak saihestera bideraturiko sozietate-tartejartzearen fenomeno ez-desiragarriari erantzute aldera, hartara jarraituz beste araudi, hitzarmen aldean zuzenketak zergapetze bikoitzeko hitzarmenetan jasotako irizpideei, zeinek ahalbidetzen baitute kasuko higiezinak dauden Estatuak zergapetu ditzen, ondare-zergapetzearen bitartez, jurisdikzio horretan egoitza duten entitateetako akzioak, egoitza-estatuarekin konpartitutako boterez.

Dena den, kontuan hartu behar da zergapetze bikoitzeko hitzarmenetan mamitzen diren lanabes juridikoek ez daukatela zerga-egitatearik sortzeko ahalmenik. Haien egiteko nagusia, beste batzuk ere izan ditzaketan arren, da tributu-botereak banatzea hitzarmena sinatzen duten estatuen artean; eta botere horien baliatzea nahiz ez baliatzea, azken batean, herrialde bakoitzaren barne-aragintzaren baitan dago. Alegia: kasuko tributua existi dadin, beharrezkoa da tokiko legediak hori arautzea. Lehenik eta behin, zergapetzea ezar dezala; eta, bigarrenik, ez dezala zergapetze horretarako inolako salbuespenik jaso.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legeak ez du aipaturiko zergapetze-aukerarik jasotzen zerga horren aplikazio-esparruan, eta hori zergapetze-politikaren asimetrikotasun esplikagaitz bat da, zergapetze-egoera berdinen aurrean gertatzen dena. Ildo horretan, egoiliarren diskriminazio justifikazina da ez-egoiliarren ondarearen gaineko zerga ordaintzeari uzte gure herrialdean egoitzarik ez duen pertsona juridiko bat tartean ipintzeagatik. Horregatik guztiagatik, zuzenketak proposatzen du Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 6.3 artikuluan jasotzea ezen Nafarroan zergapetu egi-

nen direla akzio-partaidetzak, Espainian kokaturiko higiezinak dauzkaten entitate ez-egoiliarretarako.

Aipatu zergapetzea aurreikustearren 3. apartatuko paragrafo berri bat jasotzeak behartzen du aldatzera foru lege proiektuari gehituriko 4. apartatu berriak bigarren eta hirugarren paragrafoez egiten dituen aipamenak, hemendik aurrera hirugarrena eta laugarrena izanen baitira.

12. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko zergari buruzko Foru Legearen hirugarren artikuluen hirugarren zenbakia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak proposatzen du nabarmenki areagotzea zergaren ikuspegitik txikitat jotzen diren enpresen kopurua, 10 milioi eurotik 20ra igorik kalifikazio hori lortzeko negozio-zifraren zenbateko garbiaren muga. Hau da: proposatzen da oso hein handian areagotzea –% 23ko karga-tasan, eta ez % 28koan– zergapetuak izanen liratekeen enpresen kopurua.

Alegia, enpresen zergapetzea eta zerga horren diru-bilketa jaitsi eta murrizteko beste neurri bat. Aldaketa horri justifikatugabetzat deritzogu, eta lanekoa bezalako beste errenta batzuen zergapetzearen aldean bidegabetzat.

13. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 43.1 artikulua, lehen paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: “...aurreko hamabost urteetan...”, honako hau esan behar du: “...aurreko zazpi urteetan...”.

Zioak: Zerga-oinarri positiboaren murrizketa zazpi urtera mugatzea, gaur egungo hamabosten aldean, aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuta. Gehiegizkotzat jotzen dugu murrizketa hori. Enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

14. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 43.1 artikulua, lehen paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboan murrizketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

"1. 1.ºAurre-aurreko zazpi urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, 42.1 artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio. Honako muga hauek egon diren dira:

a) Ehuneko 50, negozio zifraren zenbatekoa hogeita hamar milioi eurotik beherakoa denean.

b) Ehuneko 25, negozio zifraren zenbateko garbia hogeita hamar milioi eurokoa edo handiagoa denean.

Zioak: Zerga-oinarri positiboa aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuz murrizteko aukera mugatzea. Gehiegizkoa deritzogu zerga-oinarri positiboa % 70eraino murrizteari. Gainera, zuzenketa honi esker, Sozietateen gaineko Zergaren hamazazpigarren xedapen gehigarriak araututako oinarri negatiboan konpentsazioaren muga – 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako baino ez zen onartu– berreskuratuko litzateke. Enpresa-etekinen zerga-ordainketa handitu beharra dago.

15. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 43.1 artikulua, bigarren paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboan murrizketa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako efektuekin, bigarren paragrafoa ezabatzen da.

Zioak: Zerga-oinarri positiboan milioi bat euroko murrizketa, orain arte egon dena, ezabatzen da. Neurri horrek enpresa-etekinen murrizketa

mugatuko luke, aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuta.

16. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 51.1. artikulua a) letra. Karga-tasak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako efektuekin, "ehuneko 28" dioen tokian "ehuneko 35" behar du esan.

Zioak: Enpresa handientzako % 35eko karga-tasa berreskuratzea. Enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

17. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 51.3. artikuluko a) letraren bigarren lerrokada. Karga-tasak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako efektuekin, honako hau dioen tokian: "...ehuneko 25eko tasa...", honako hau esan behar du: "...ehuneko 35eko tasa...".

Zioak: Landa-kutxei eta kreditu-kooperatibei % 35eko karga-tasa ezartzea. Banka pribatuaren gainerako entitateek bezala diharduten finantza-entitateak dira.

18. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 51. artikulua. 7. apartatu berria gehitzen da. Karga-tasak.

51. artikuluar 7. apartatu berria gehitzen zaio, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin. Honela dio:

"7. % 50eko tasa ordainduko dute kirol-apus-tuak xede dituzten sozietateek, Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean ezarritako kon-zeptuen arabera".

Zioak: Halako enpresak jartzeko asmoei atzera eragiteko eraginkorra den zerga-tasa bat ezar-tzea.

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluar zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 53.2.2.^o) a) artikulua. Gu-txienerako tributazioa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zer-galdietarako efektuekin, "ehuneko 18" dioen tokian "ehuneko 25" behar du esan.

Zioak: Enpresa handiei ehuneko 25eko gu-txienerako zerga-tasa ezartzea. Enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

20. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluar zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

"Zenbaki berria. 53.2.3. artikulua, b) eta c) letrak. Gutxienerako tributazioa.

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zer-galdietarako ondorioekin, ezabatu egiten dira 53. artikuluarren 2.3 apartatuko b) eta c) letrak.

Zioak: Gutxienerako tributazioa benetan gauza-tzea, hura murrizteko kasu gehigarriak kenduz (ekoizpen zinematografikoak eta ikerketa- eta garapen-gastuak). Murrizketa hori gehiegizkoa dela uste dugu, eta beharrezkoa da enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidez bildutako diru-kopurua handitzea.

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluar zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 61.1. artikulua. Kenkaria iker-keta eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zer-galdietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: "...ehuneko 40ko kenkaria kuota likido-an...", honako hau esan behar du: "...ehuneko 25eko kenkaria kuota likidoan...".

Zioak: Gehiegizkotzat jotzen dugu kenkari hori. Enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluar zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

"Zenbaki berria. 61.1. artikulua. Kenkaria iker-keta eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zer-galdietarako ondorioekin, ezabatu egiten dira 61.1. artikuluarren bigarren, hirugarren eta laugarren paragrafoak.

Zioak: % 40ko orokorrari gehitu beharreko % 10eko kenkari gehigarria kendu da. Gehiegizko-tzat jotzen dugu kenkari hori. Enpresa-etekinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

23. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari 65.ter artikulua gehitzea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

"65. ter artikulua. Telelana sustatzeari lotutako gastu eta inbertsioengatikoko kenkaria.

1. Entitateak enplegatuen telelana sustatzeko egiten dituen gastuek kuota osoan zergaldian egindako gastuen % 60ko kenkaria egiteko esku-bidea emanen dute, gastuak telelana egiteko behar diren ekipoak eta terminalak erosteko edo eguneratzeko eta softwarea eta lotutako periferikoak erosteko egiten badira, edo ondasun horiek erosteko maileguak eta laguntza ekonomikoak emateko egiten badira. Gastu horiei halakoak egiteko jaso diren eta zergaldian sarrera gisa egozten ahal diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko zaie.

Kenkari honek aipatzen dituen gastu eta inbertsioen artean, periferikotzat hartuko dira, besteak beste, monitoreak, teklatuak, saguak, bozgorailuak, inprimagailuak, webcamak, mikrofonoak, aurikularrak eta USB memoriak.

2. Entitateak enplegatuek telelana garatu ahal izateko itzulitako gastuek kuota osoan zergaldian itzulitako gastu horien % 60ko kenkaria egiteko eskubidea emanen dute, gastuak ohiko etxebizitzako elektrizitatea, telefonoa eta Internet eta berogailua ordaintzeko badira, baita enpleguak bulegoko materialak erosteko egindako gastuak badira. Gastu horiei itzulketak egiteko jaso diren eta zergaldian sarrera gisa egozten ahal diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko zaie.

Kenkari horren onuradun izan daitekeen langile bakoitzeko itzulitako gastuen urteko gehieneko zenbatekoa 2.000 euro da.

3. Kenkari hori urrutiko lanari buruzko irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretua aplikatu behar zaien langileei aplikatuko zaie”.

Zioak. COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz urrutiko lana edo telelana normalizatzen ari denez, lana egiteko modu horren ondorio fiskalak arautu behar dira. Horrez gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguarentzat abantaila ukaezinak baititu, bai osasunari dagokionez –lanerako bidean eta lanetik bueltan istripuak izateko arriskua desagertzen da, lanerako joan-etorriek eragindako estresa murrizten du eta Covid-19a bezalako pandemia baten ondorioz kutsatzeko arriskua gutxitzen du–, bai lanari dagokionez –handitu egiten da errendimendua eta, ondorioz, hobetu egiten da enpleguaren lanaren ebaluazioa, ez duenez lantokira joan behar, denbora aurrezten duelako, eta hobetu egiten da kontzentrazioa–, bai lana eta familia bateratzeari dagokionez –ordutegiaren malgutasuna handiago da–.

24. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

"Hemezortzi. 93.1 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako indarrez.

1. Laurogeita hamabigarren artikuluko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren errentamendutik sortutako errentei kuota osotik dagokien partearen ehuneko 40ko hobaria izanen du.

Hobari hori ehuneko 85ekoa izanen da honako hauen errentamendutik datozen errentak direnean:

a) Alokairu Sistema Publikoari atxikitako etxebizitzak. Sistema hori jasota dago Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian.

b) Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarriari eta Nafarroan etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrari iraganean atxikitako etxebizitzak.

c) Desgaitasuna duten pertsonen etxebizitzak errentamenduan hartzetik eratorritako errentak direnean, baldin eginak badira, haietan, irisgarritasunerako eta komunikazio sentsorialerako beharrezkoak diren egokitzapen-obra eta -instalazioak, desgaitasuna duten pertsonak duintasun eta egokitasunez molda daitezela erraztekoak. Administrazio eskudunak ziurtatu egin beharko ditu obra eta instalazio horiek. Errentariak desgaitasuna frogatu beharko du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian aurreikusitako moduan”.

Zioak: Proiektuan aurreikusitako portzentajeei eskas irizten zaie etxebizitzarik ezaren problemari errentamendu babestuko baldintzetan aurre egiteko.

Zuzenketa proposatzen du foru lege proiektuak jasotzen dituenak baino hobari-portzentaje

handiagoa ezartzea etxebizitza-errentamenduan diharduten entitateentzat, horiek aritzen direnean, 92. artikuluko baldintzak beterik, etxebizitza babestuen, errentamendu-sistema publikora atxikitakoen edo desgaitasuna duten pertsonen alokatuak direnen errentamenduan.

Proiektuak ehuneko 70eko hobari-porzentajeak jasotzen ditu desgaitasuna duten pertsonen alokatutako etxebizitzetatik lorturiko errenten kasuan, eta ehuneko 65ekoak, etxebizitza babestuen eta alokairu-sistema publikora atxikitakoen errentamendutik eskuratutako errentetarako. Zuzenketak ehuneko 85eko hobaria proposatzen du hiru kasuetarako, egungo sustapenetan errenta babestuaren baldintzak mantentzearen alde jokatzeko modu gisa: halaber proposatzen du errentamendu babestuko sustapen berriak abiarazteko pizgarriak ematea.

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko hirugarren artikuluari zenbaki berri bat gehitzeko zuzenketa.

“Zenbaki berria. 107,1. artikulua. Talde fiskalaren zerga-oinarriaren murriztapenak. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten da 107.1. artikulua bigarren paragrafoa”.

Zioak: Zerga-oinarri positiboa aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboak aplikatuz murrizteko aukera mugatzea. Gehiegizkoa deritzogu likidazio-oinarri positiboa % 70eraino murrizteari, eta beharrezkoa ikusten dugu enpresen mozkinen gaineko zerga horren bidezko diru-bilketa handitzea.

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 107. artikulua 1. apartatua aldatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“107. 1. Talde fiskalaren zerga-oinarria likidazio oinarri negatiboak kenduz murrizten ahalko da, 43. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Zerga-taldean sartzen den unean edozein entitateak likidazio-oinarri negatiboak konpentsatu

gabe baditu, oinarri horiekin taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da, eta muga izanen da entitatearen zerga-oinarri indibiduala, ken, hala bada-gokio, 42.1 artikulua lehenengo eta bigarren zenbakietan aipatzen diren murriztapenen zenbatekoa, kontuan harturik entitate horri dagozkion ezabatzeak eta sartzak, 104.2 eta 3 artikuluan ezarritakoarekin bat”.

Zioak. Zenbait muga sartu izan dira konpentsazioaren xede diren kopuruetan, dirua biltzeko, besterik gabe. Hala ere, Estatuarekin alderatuta, non ez baitago denbora-mugarik, edo Euskadirekin, non 30 urteko epea ezartzen baita, 15 urteko muga ezartzen da aipatutako likidazio-oinarri negatiboak aplikatzeko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

27. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua aldatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1. Ekintzaileak dira enpresa edo lanbide jarduera bat egiten duten pertsona fisikoak eta entitateak, nortasun juridikoa izan ala ez, jarduera hori betetzen duten lehen bost zergaldietan, baldin eta ondokoa betetzen badute:

a) Enpresa txikiaren izatea.

b) Altan emanda egotea jarduera ekonomikoaren gaineko zergan, ekintzailetzari laguntzeko neurriak jasotzeko moduan dauden zergaldietan, etenik gabe.

c) Entitateak badira, mozkinik ez banatzea edo ez banatu izana.

2. Honako hauek ez dira ekintzailetzat hartuko:

a) Ondasunen edo zerbitzuen ehuneko 75etik gora pertsona fisiko edo entitate bakar bati ematen dioten pertsona fisikoak edo entitateak, eta ekonomikoki mendekoa den langile autonomotzat joak dauden pertsona fisikoak, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen II. tituluko III. kapituluan xedatutakoari jarraituz.

b) Pertsona fisikoak, baldin eta hasten badira lehenago, aurreko 5 urtean, edozein unetan,

beraiek, beren ezkontideek, aurreko edo ondorengo ahaideek, edo haien partaidetza duten errentak eratzikitzeko araubideko entitateek, edo sozietateen gaineko zergaren zergadunak diren entitateek (haitan % 25eko partaidetza edo handiagoa badute) egin duten jarduera batean.

c) Entitateak, baldin eta hasten badira lehenago, aurreko 5 urtean, edozein unetan, beraiek, edo beste entitate batek, zeinarekin kapitalaren titulartasunaren ehuneko 50 baino gehiagotan berdina baita, ehuneko 25eko partaidetza edo handiagoa duen bazkideren batek edo sozietateen talde bereko edozein entitatek (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluan xedatutakoarekin bat) egin duten jarduera batean, kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu konsolidatuak egin beharra.

Enpresa-oinordetza, -jarraipena edo -berregituratzea egiten bada, jarduera bete zuen lehenbiziko pertsonak edo entitateak jarduera hasi zuenetik aurrera kontatuko da 5 zergaldiko epea.

Jardueraren hasiera izanen da pertsona fisikoak edo entitateak jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta eman behar duen unea, zerga horri buruzko arauarekin bat.

3. Pertsona edo entitate ekintzaileen onura fiskalak:

a) Ez dute izanen pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua egin beharra.

b) Administrazio Tributarioak baimena emanen du, aldez aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interessea sorrarazi gabe, sartu beharreko kuota geroratzeko sozietateen gaineko zergan edo pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, enpresa edo lanbide jarduera dela eta. Geroratuko kuotaren sarrera zergaldi bakoitzeko aitopren-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean egin beharko da.

c) Zerga Administrazioak baimena emanen du, aldez aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interessea sortu gabe, beren langileei pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan egindako konturako atxikipenak geroratzeko. Geroratutako kopuruen sarrera hurrengo urteko otsaileko azken eguna baino lehen egin beharko da.

d) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunek ehuneko 70 murriz dezakete beren enpresa edo lanbide jardueraren errendimendu garbia positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko

epearen barnean badaude jarduera hasi zenetik aurrera. Murriztapen hori aplikatzeko, zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehaztu behar da enpresa edo lanbide jardueraren errendimendu garbia.

e) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek ehuneko 70 murriz dezakete zerga-oinarria positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduera hasi zenetik aurrera. Jarduera ekonomiko bat garatzen heldu den zerga-oinarriaren zatiari baino ez zaio aplikatuko murriztapen hori.

f) Foru lege honen 58. artikuluko kenkaria aplikatu dezakete, nahiz eta 59.b) artikuluko aipatzen duen baldintza ez bete.

g) Jarduera berritzaile bat egiten badute edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa:

1) Foru lege honen 58. artikuluko kenkaria aplikatu dezakete, ehuneko 5 puntu gehituta.

2) 78.2 artikuluan aipatzen diren ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egiteagatik kenkari espezifikoari dagokion itzulketaren muga. 2) 100.000 euro handituko da.

h) Foru Lege honen 43. artikuluan 1. apartatuan ezarritako muga ez zaie aplikatuko hirugarren xedapen gehigarri honetan jasotako entitateei, likidazio-oinarri positiboa sortu eta lehenengo 3 zergaldietan, betiere, aipatutako baldintza betezen jarraitzen badute.

i) Sozietateen gaineko Zergako zergadunek, hirugarren xedapen gehigarri honen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera entitate ekintzailetzat jota badaude, ehuneko hamarreko karga-tasa ordainduko dute likidazio-oinarria positiboa den zergaldian eta hurrengo hiruetan, betiere, aipatutako baldintza betetzen jarraitzen badute".

4. Entitate ekintzaileetan inbertitzen duten pertsonen edo entitateen onura fiskalak.

a) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zergadunek eta sozietateen gaineko zergari lotutako zergadunek % 40ko kenkaria egiten ahalko dute entitate ekintzaileen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan, baldintza hauek betetzen badira:

i) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

ii) Pertsona fisikoa den zergadunaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 40tik gorakoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen partaidetza eta haren odol edo ezkontza bidezko zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mailara arte, horiek barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

iii) Zergadunaren partaidetza, hura pertsona juridikoa denean, bere talde berean dauden gainetako sozietateen partaidetzarekin batuta (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua zentzuan), kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egin beharra, ezin da inbertsioaren xedeko sozietatearen boto-eskubideen edo kapital sozialaren ehuneko 40tik gorakoa zergaldiko ezein egunetan. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

iv) Zergadunak, pertsona fisikoa bada, parte har dezake bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan, baina ezin du inola ere hango betearazpen edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Laneko edo lanbideko harremanik ere ezin du izan entitatearekin inbertsioaren aldiaren eta hurrengo bietan.

v) Zergadunaren ondarean mantendu behar dira akzioak edo partaidetzak, gutxienez 3 urteko epean. Epe horretan, entitateak jarraitu behar du jarduera ekonomiko bat gauzatzen.

vi) Kenkari hori aplikatzeko, Zerga Administrazioak aldeztatik egiaztatu behar du aurreko baldintzak betetzen direla eta, inbertsioa zer entitatetan egiten den, horrexek erregistraturik egon behar du 6. apartatuak araututako pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan. Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera eta egun horren aurreko 6 hilabetearen egindako inbertsioek izan dezakete kenkaria.

Harpidetutako akzioak edo partaidetzak bada- gozkie jarduera berritzaile bat egiten duten entitateei edo bereziki sustatu gogo den sektore bateko edo espezializazio adimentsuko entitateei, kenkaria izanen da egindako diru-ekarpenaren zenbatekoaren ehuneko 45koa.

viii) Kenkariaren gehieneko zenbatekoa 80.000 eurokoa izango da zergaldiko. Zenbateko hori 130.000 eurokoa izatera pasako da, inbertsioa zer entitatetan egiten den, horrexek jarduera berri-

tzaille bat egiten badu, edo bereziki sustatu gogo den sektore batean sartuta badago, edo espezializazio adimentsukoa bada. Kuota aski ez izateagatik kenkaririk gabeko zenbatekoak kenkaria izan dezake hurrengo 15 zergaldietan.

b) Salbuetsita egonen dira gauzako lan-ordainsariak, sozietateek beren akzio edo partaidetzak jarduneko langileei doan edo merkaturiko prezio normala baino merkeago ematearen ondorioz sortutakoak, baldin eta xedapen gehigarri honetan jasotakori jarraikiz ekintzailatzat jotako entitateetako langileei aurretiaz emandako akzioen edo partaidetzen gaineko erosteko aukera baliatzearen ondorio badira, eta langile bakoitzari guztira emandakoaren zenbatekoa ez bada 50.000 eurotik gorakoa urtean”.

c) Kargatik salbuesten ahalko dira xedapen gehigarri honetan araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten entitate ekintzaileetako akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak, baldin eta haien zenbateko osoa berrinbertitzen bada kenkari hori aplikatzeko eskubidea ematen duten beste entitate ekintzaile batzuetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako guztizkoa baino, zergapezetik salbuetsiko da berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare gehikuntza lortuaren zati proportzionala bakarrik. Letra honetan xedatutako zerga-onura bateraezina izanen da, berrinbertsioa gauzatzen den akzio edo partaidetza eta zenbateko berberetarako, xedapen gehigarri honetan araututako kenkariarekin.

5. Zer den jarduera berritzailea edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa.

Jarduera berritzaile edo bereziki sustatu gogo den sektore batekotzat edo espezializazio adimentsukotzat joko da garapen ekonomikoaren arloan eskuduna den departamentuan halakotzat joa dena.

6. Pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroa.

Xedapen honetan zehazten diren onura fiskalak aplikatzeko, zergadunek pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzeko eskaera egin beharko dute.

Erregistroko inskripzioa jarduera hasten deneetik aurrera egin daiteke.

Erregistroan inskripzioa egiten den egunetik aurrera aplikatu daitezke onura fiskalak, eta gehie-

nez ere 5 zergalditan, jarduera hasten den egunetik aurrera.

7. Ezin izanen dute araubide honetako onura fiskalik eskuratu pertsona edo erakunde ekintzaileek, beraiek edo bitarteko pertsona batek sortu edo zuzendutakoek, tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez badituzte, eta epai irmo bidez kondena jaso badute administrazio desleialaren, zigortzeko moduko kaudimengabeziaren, sozietate-delituen, kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen delituengatik, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Seguratzaren aurkako delituengatik, prebarikazio, funtzionario-eroskeria, influentzia-trafiko, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearen, iruzurren eta legearen aurkako ordainarazpenen delituengatik edo hirigintza-delituengatik, bai eta dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jasotakoek ere. Administrazioarekin kontratatzeko aukera galdu dutenek ere ezin izanen dituzte baliatu onura hauek.

8. Ez-betetzeak.

Xedapen honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira araubide honen onura fiskalak izateko eskubideaz baliatzeko.

Aurreko apartatuetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada edo erregistroetako datuak zuzenak ez direla edo faltsuak direla egiaztatzen bada, hori aski izanen da erregistroko inskripzioa ukatzeko edo, zergadunak jadanik inskribatuta baldin badaude, erregistro horretatik kanporatzeko.

Ez-betetze horrek ekarriko du izandako onura fiskalak galtzea. Izandako onura 3. apartatuko b) eta c) letretan zehaztutako geroratzetako edozein denean, pertsona edo entitate ekintzaileak ordaindu beharko du, hilabeteko epean ez-betetzea gertatzen denetik aurrera, geroratzetako zenbatekoa, gehi bidezko berandutza-interesak. Gainerako kasuetan, pertsona edo entitate ekintzaileak ordaindu beharko du, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kuotarekin batera, gaizki aplikatutako kenkariari edo murriztapenari dagokion kuota osoa, gehi berandutza-interesak.

4. apartatuan ezarritako baldintzetako edozein ez-betetzeak ekarriko du, inbertsioa egin duen pertsonarentzat edo entitatearentzat, egindako kenkarirako eskubidea galtzea. Hortaz, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kuotarekin batera, gaizki aplikatuta-

ko kenkariari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, gehi berandutza-interesak.

9. Zerga-arloko eskumena duen departamentuko titularrari gaikuntza ematen zaio beharrezko xedapenak eman ditzan xedapen hau garatzeko. Zehazki, gaikuntza ematen zaio pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroa eta horretan inskripzioa egiteko prozedura arautzeko”.

Zioak. Espainiako Gobernuaren enpresa emergenteen ekosistema sustatzeko lege-proiektuaren ildotik, eta ekintzailetzari laguntzeko, talentua erakartzeko eta eremu berritzaileenetan enpresa emergente berriak sortzeko, bizkorgarriak ezartzen dira Nafarroa erakargarria izan dadin enpresa horiek kokatzeko eta horrek dakarren talentua erakartzeko, langileentzako pizgarrien bidez.

28. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen Testu Bategineko 34, 1, a), 1.a eta 2.a artikulua aldatzea eta 3. eta 4. zenbakiak indarrik gabe uztea. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) 1.a Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, odolkitetasuneko zuzeneko aurrekoak edo ondorengoak, adopzio-hartzaileak edo adoptatuak eta bigarren mailako albo-ahaideak, haietako batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duenean, “mortis causa” eskurapenak direnean, jaraunspen, legatu edo beste edozein oinordetza-titulu bat tarteko; halaber, 8.c) artikuluan aipatutako biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzen dituztenean.

Karga-tasa:

– 400.000 eurorainoko likidazio-oinarria: Ehuneko 0.

– Oinarriaren soberakina: Ehuneko 0,80.

2.a Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, odolkitetasuneko zuzeneko aurrekoak edo ondorengoak, adopzio-hartzaileak edo adoptatuak eta bigarren mailako albo-ahaideak, haietako batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duenean, dohaintza bitartezko eskurapenak direnean edo beste edozein “inter vivos” doako negozio juridikoa denean, bai eta 8. artikuluko d) eta e) letretan aipatzen diren biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzen dituztenean.

Karga-tasa: Ehuneko 0,8”.

Zioak. Zuzenketa honen bidez, oinordetzen eta dohaintzen fiskalitatea berreskuratu nahi da Nafarroan, non, tradizioz, aurreko eta ondorengo ahaideen arteko translazioek gurasoen eta seme-alaben arteko transmisiora egokitutako tributazioa izan baitu, familiak babesteko. Gainera, gure ingurune hurbilenerako –Euskal Autonomia Erkidegoa eta erkidego mugakideak— fiskaliterako egokitzen da, gertatu diren ondareen deslokalizazio-egoerak saihestuz; izan ere, horien azken emaitza izan da Nafarroarentzat diru-bilketaren galera gertatzea.

Gainera, ohikoa da bigarren graduako albo-ahaideek desgaitasunen bat duten beren anai-arreben ardura hartzea. Hala, desgaitasunen bat duten anaia-arreben zaintza errazteko, arindu egin nahi da bigarren graduako albo-ahaideen artean dauden kostu gabeko eskualdaketei gaur egun aplikatu behar zaien zerga-karga, ahaideetako bateak % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duenean. Zerga-kargaren gutxitze hori oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan aurreko eta ondorengo ahaideen arteko eskualdaketei aplikatzen zaien kargaren tarifari parekatuta egiten da.

Azkenik, oinordetzen kasuan, herentzia txikienezako salbuespena ezartzen da, egungoa baino handiagoa, zerga progresiboagoa eginez.

29. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bosgarren artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Bosgarren artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina.

“Bi bis. 35.I.B.26 artikulua, lehen paragrafoa.

“26. Mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuzko nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak, egiten direnak martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean –baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurri buruzkoa– eta Jardunbide Egokien Kode berriaren babesean –zeina ezarri baitzen azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege-dekretuaren bitartez, zeinak

ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguetan interes-tasen igoera samurtzeko Jardunbide Egokien Kode bat ezartzen baitu, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurri buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretua aldatzen baitu eta hipoteka-maileguren merkaturako hobetzeko bestelako neurri egiturazkoak hartzen baititu–, salbuetsirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik”.

Zioak: Azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege-dekretuaren bidez eginiko aldaketen ildotik –zeinak ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguetan interes-tasen igoera samurtzeko Jardunbide Egokien Kode bat ezartzen baitu, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurri buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretua aldatzen baitu eta hipoteka-maileguren merkaturako hobetzeko bestelako neurri egiturazkoak hartzen baititu–. Aldaketa hori halaber jasotzen da Nafarroan ere egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik salbuetsirik uzte aldera Jardunbide Egokien Kode horren babesean egiten diren kontratuzko nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak, haiei emanez martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuko Jardunbide Egokien Kodeari loturik daudenen tratamendu berbera.

30. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Hamargarren artikuluari Bat apartatu berria gehitzeko zuzenketa. Ondorioz, proiektuan Bat eta Bi gisa agertzen diren horiek Bi eta Hiru izanen dira, hurrenez hurren.

Hamargarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legea.

“Bat. 4.f) a’) artikulua.

“a’) Bigarren atalean (lanbide jarduerak), 86. elkartean, 861, 862, 864 eta 869. taldeetan sartutakoak, pertsona fisikoak direnean”.

Zioak: EJZ-Ekonomia-jardueren gaineko zergako epigrafeetako 86. elkartean (lanbide liberalak, artistikoak, literarioak eta kulturalak) proiektuak sartzen dituen aldaketen ondorioz, doitu

beharrekoa gertatzen da Kultur Mezenasgoari buruzko Foru Legeak mezenasgo horren onuradun izan daitezkeen EJZko epigrafeei buruz egiten duen erreferentzia.

31. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa.

"Xedapen gehigarri bakarra. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan emandako laguntzak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eta Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita egonen dira – errege lege-dekretu horren bidez, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei eran-

tzuteko, zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialerako zenbait neurri hartu eta luzatzen dira–, bai eta abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak ere (14/2022 Errege Lege-dekretua, Garraioaren arloko jasangarritasun ekonomikoko neurriei buruzkoa, ikasketetarako beka eta laguntzei dagokienez, eta aurrezpen neurriei, energia-efizientziari eta gas naturalaren mendeotasun energetikoa murrizteari buruzkoa).

Halaber egonen dira salbuetsita Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren azaroaren 15eko 770/2022 Erabakiari loturik emandako laguntzak, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako enpresentzako laguntzen deialdia, energia-kostuek 2022an zehar izandako gorakadari aurre egiteko".

Zioak: Zuzenketa honen bidez, PFEZerako eta Sozietateen gaineko Zergarako salbuetsitzat deklaritzen dira Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren azaroaren 15eko 770/2022 Erabakiari loturik emandako laguntzak, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako enpresentzako laguntzen deialdia, energia-kostuek 2022an zehar izandako gorakadari aurre egiteko.

